

Traducción al vascuence de un capítulo de “El Quijote,,

IX GAREN ATALA

CAPITULO IX

Non etsia ematen zaion, euskaldun (1) lerdanak eta mancha'tar' kementsuak, elkarekin izan zuten arigarizko garaikeriari.

Donde se concluye y da fin a la estupenda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron.

Edesti unen lenbiziko zatian utzi ditugu euskaldun kementsua ta Don Kijote ospatsua, beren ezpata biluziak goraturik, bi ukaldi gaitzak elkar ematekotan, iduri baizuen, ideki bear' zuela bata bertzeta ta burutik beiti erdibitu granada bat ebakitzen den bezala, erdiz-erdi yotzen bazuten bedere.

(2) Estualdi lafi untara nintzanean, moztua gelditu zen alako kondaira mamitsua, egileak aren beri guri eman gabe eta eran ere gabe non arkitu litekean kondaira'ren yaraipena.

Biotz min andia artu nuen au ikustean eta irakurgai laburaren atsegiña, atsekabea bila-

Dejamos en la primera parte desta historia al avlero vizcaíno y al famoso Don Quijote con las espadas altas y desnudas en guisa de descargar dos furibundos fendientes, tales que si en lleno se acertaban, por lo menos se dividirían y fenderían de arriba abajo, y abrirían como una granada; y en aquel punto tan dudoso paró y quedó destroncada tan sabrosa historia, sin que nos diese noticia. su autor dónde se podría hallar lo que della faltaba. Causóme esto mucha pesadumbre, porque el gusto de haber leído tan poco se volvía en disgusto de pensar el mal

(1) Cervantesek *vizcaíno* deitzen duena, nik deitzen dut euskalduna ta ez bizkaitarā, guziek dakigulakotz, aldi ayetan *vizcaínos* deitzen zituzten euskaldun guzieri: Cervantesek ez bide zeukan gogoan bizkaitarak bakarik, baizik euskaldunak.

(2) Argiago aditzeagatik zatitzen ditut euskeraratzean, Cervantes'en lerokada luze zenbeit, ezdelarik ala ipuyaren mamia galtzen. J. Benaventek dion bezala, ongi itzulikatzeke ezta itzez-itze egin bear, baizik egileak eran nai duena (emea Cervantesek) eman euskaraz aalik argienik eta ederkiena.

katu zitzaidan, gogoeta egonik zein gaitz zela ipui mamitsu arek, ene iduriko orañik ainberztezue eskas zuenaren atxemaiteko.

Ezinezko gauza zitzaidan eta oitura on ez den bezala, orelako zaldun andi batek, yakintsun bat ez izatea, zaldun aren beinere ikusi ez diren gertakarien idazteko lana, bere gain artu lezakeana.

Gertagayen bila, diotenez, dabilzan zaldun ibildari orietarik iñori ere ezpaitzaio eskastu alako idazle yakintsun bat. Zeren zaldun orietarik bakotxak bazuen bere beteko yakintsun bat edo bi, ez bakarrik bere egintzeen beri ematen zutena, baizik eta beren gogoeta ñimiñoenak eta umekeriak, gordeenak izan aren, eta beraz orelako zaldun ona etzen ain zoritxarekoa agertu bear, ez izateko Platir eta bere idurikoek izan zutena.

Siñeskaitza zitzaidan, beraz, olako kondaira aipagarria motz ta elbahi gelditzea, ta gauza guzien iresle ta ondazale den astia edo denboraren *erdoila* egiten nuen erudun, nonbait eskutatu edo ondaturik bide zeukalakotz gure ipuia.

Bertalde, bere gutunen artean arkitu baiziren «*Desengaño de celos*» eta «*Ninfas y pastores de Henares*», iduritzen zitzaidan Don Kijote'ren kondaira ere, ok bezain irakurgai oraitsukoa litzakea, ta idatzirik ezpazagon ere,

camino que se ofrecía para hallar lo mucho que a mi parecer faltaba de tan sabroso cuento Parecióme cosa imposible y fuera de toda buena costumbre que a tan buen caballero le hubiese faltado algún sabio que tomara a cargo el escribir sus nunca vistas hazañas, cosa que no faltó a ninguno de los caballeros andantes de los que dicen las gentes que van a sus aventuras, porque cada uno dellos tenía uno o dos sabios, como de molde, que no solamente escribían sus hechos, sino que pintaban sus más mínimos pensamientos y niñerías, por más escondidas que fueren: y no había de ser tan desdichado tan buen caballero, que le faltase a él lo que sobró a Platir y a otros semejantes. Y así no podía inclinarme a creer que tan gallarda historia hubiese quedado manca y estropeada, y echaba la culpa a la malignidad del tiempo devorador y consumidor de todas las cosas, el cual o la tenía oculta o consumida. Por otra parte, me parecía que pues entre sus libros se habían hallado tan modernos como «Desengaño de celos» y «Ninfas y pastores de Henares», que también su historia debía de ser moderna, y que ya que no estuviese escrita, estaría en la mente de la gente de su aldea y de las a ella circunvecinas. Esta imaginación me

bere erikoen gogoan, edo inguruko eritarien oroitzapenean bizi, rik egonen zela.

Iduri unek xoratuta nadukan ta gutziatsu, Mancha'ko Don Kijote gure españatar ospatsua-ren bizitza ta gertakizun guziak egiazki ta diren bezala ikasteko, Mancha'tar zaldunerien argi ta eredu izan zenarenak, ta oraiko zoritxareko aldi oketan, Izkiludun Ibildarien lanetan leenik yardundu zena.

Eman zen ere bidegabekoen zuzentzera, alargunen laguntzera, ta zaldi gañean eta zigora eskuan zebiltzan neskatheen begiratzera, beren gizkarbitasuna (1) mendiz-mendi ta ordokiz-ordoki soinean daramakiten aye-tarik.

Gizatxaren bat edo burkoa ta aizkoradun aroputz orietarik bat, edo etaldoi izigarrien batek ezpazuen neskatxa orietarik bat beretzen eta bortxatzen, alakoe-tarik izan zen iragan diren egu-netan, bere bizitza'ko lauetanogei urtetan egun batez ere aterbean lorik egin gabe iragan ondotik il-obira yuan zena bere amak erditu yuen bezain osorik.

Diot, bada, ori ta alako bertze gauza askorengatik, gure Kijote lerdena gai dela betiko oroigarrietan goresteko. Eta neri ere ezdirate goragariak ukatu bea-
kondaira atsegingari unen azken

traía confuso y deseoso de saber real y verdaderamente toda la vida y milagros de nuestro famoso español Don Quijote de la Mancha, luz y espejo de la caballería manchega, y el primero que en nuestra edad y en estos calamitosos tiempos se puso al trabajo y ejercicio de las andantes armas, y al de desfacer agravios, socorrer viudas, amparar doncellas de aquellas que andaban con sus -azotes y palafrenes, y con toda su virginidad a cuestras de monte en monte y de valle en valle: que si no era que algún follón o algún villano de hacha y capellina, o algún descomunal gigante las forzaba, doncella hubo en los pasados tiempos que al cabo de ochenta años, que en todos ellos no durmió un día debajo de tejado, se fué tan entera a la sepultura como la madre que la había parido. Digo pues que por estor y otro muchos respetos es digno nuestro gallardo Quijote de continuas y memorables alabanzas, y aún a mí no se me deben negar por el trabajo y diligencia que puse en buscar el fin desta agradable historia: aunque bien sé, que si el cielo, el caso y la fortuna no me ayudaran, el mundo quedara falto y sin el pasatiempo y gusto que, bien casi dos horas, podrá

(1) gizkarbitasuna = birginetasuna.

zatiaren bila ain erne yasan ditudan nekeengatik.

Badakit, ordea, munduak eskas zukela, baldin zerua ta zori ona nere aldetik izan ezpanitu, eta unen irakurlea geldituko litzakela, bi ordu urënan begi bazka goxo au gabe. Ara nolatan atxeman nuen:

Egun batean, Toledo'ko Alcaná'n nindagoelarik, eldu izan zen mutil bat, gutun eta ingi (1) zaar batzu saltzera ziriku-merkatari bati.

Anbatetaraino irakurzalea bainaz ni, non, ta, karketako ingi zata'arak ere irakurtzen baititut, nere gutziari bazka emanez, artu nuen mutilak saltzen zituen palasa ayetarik bat, ta ikusita, ezautu nuen arabiata' izkietan (2) emana zagoela.

Idazkera ori nik ezautztaren ezpainezaken irakuk, bea ibili nintzan an inguruan ba ote zen espaneraz dakiten mauri oriatarik bat, *mauri aljamiatu* deitzen direnetarik.

Etzen gaitz izan olako itzulikatzaile bat arkitzea: ezta ere bertze erdara zaar eta ospatsuatotik itzalikatzen zakienik.

Zorionean, bada, arkitu nuen bat, ta esku artean ezari nio-larik gutuna, nere nai ura erakutsi ta, ideki zuen erdi-erditik eta irakurtzen asi orduko ifiari eman zen. Galdegin nion, zer-

tener el que con atención la leyere. Pasó, pues, el hallarla en esta manera:

Estando yo un día en el Alcaná de Toledo, llegó un muchacho a vender unos cartapacios y papeles viejos a un sedero: y como soy aficionado a leer aunque sean los papeles rotos de las calles, llevado desta mi natural inclinación tomé un cartapacio de los que el muchacho vendía, y víle. con caracteres que conocí ser arábigos, y puesto que, aunque los conocía, no los sabía leer, anduve mirando si parecía por allí algún morisco aljamiado que los leyese: y no fué muy dificultoso hallar intérprete semejante, pues aunque le buscara de otra mejor y más antigua lengua, le hallara. En fin, la suerte me deparó uno, que diciéndole mi deseo, y poniéndole el libro en las manos, le abrió por medio, y leyendo un poco en él, se comenzó a reír. Preguntéle que de qué se reía y respondiome que de una una cosa que tenía aquel libro escrita en el margen por anotación. Díjele que me la dijese, y él sin dejar la risa, dijo: Está, como he dicho, aquí en el margen escrito esto: «Esta Dulcinea del Toboso tantas veces en esta historia referida, dicen que tuvo la mejor mano para salar puer-

(1) ingi = papera.

(2) izkietan = moldetan.

gatik egiten zion iri, ta erantzun zidan: irakurgaiak ori-egian zekaren oar batzu-engatik. Yakin nai nuela eran nion, ta iriari utzi gabe eran zidan: «Eran dutan bezala, emen bazterean auxe dago idatzirik: *Toboso'ko Dulzinea unek emen anbat aldiz aipatua, Mancha'ko bertze emazteki edozeñek baño esku obea izan ornen zuen urdaiak gazitzeko*». *Toboso'ko Dulzinea* izen ori nik entzutearekin aritu ta mututurik gelditu nintzan, bereala susmoak eman zidalakotz gutun ayetan zagokela (1) Don Kijoteren kondaira.

Gogo unetan, leiatu nuen mai-rua, irakurgaiaren asiera irakur zezan, ta unela eginik, bat-batian arabetik gaztelerara itzulirik, ala zion, zioela: «Mancha'ko Don Kijoteren kondaira, Cide Hamete Berengeli, arabiatar kondairaegi-leak idatzia».

Zuurtzi andia bear izan nuen, irakurgaiaren idatzpurua entzu tearekin artu nuen atsegina, arpegira agertzen ez uzteko, ta ziriku merkatari-ari aitzinduz erosi nition mutilari gutun eta palasa guziak sueldo erdi batean.

Ohartu balitz gutun ekenga nako nere gutziari, eraz aski uste luke mutil arek eta nereganik erdietsi ere, eroste aren truk, sei sueldo bailo geiago.

Eliza nagusiko gorapetan barrena baztertu nintzan gero mai-

cos, que otra mujer de toda la Mancha». Cuando yo oí decir Dulcinea del Toboso, quedé atónito y suspenso porque luego se me representó que aquellos cartapacios contenían la historia de Don Quijote. Con esta imaginación le dí priesa que leyese el principio, y haciéndolo así, volviendo de improviso el arábigo en castellano, dijo que decía: «Historia de Don Quijote de la Mancha, escrita por Cide Hamete Benengeli, historiador arábigo». Mucha discreción fué menester para disimular el contento que recibí cuando llegó a mis oídos el título del libro, y salteándosele al sedero, compré al muchacho todos los papeles y cartapacios por medio real: que si él tuviera discreción y supiera lo que yo les deseaba, bien se pudiera prometer y llevar más de seis reales de la compra. Apartéme luego con el morisco por el claustro de la iglesia mayor, y roguéle me volviese aquellos cartapacios, todos los que trataban de Don Quijote, en lengua castellana sin quitarles ni añadirles nada, ofreciéndole la paga que él quisiese. Contentóse con dos arrobas de pasas y dos fanegas de trigo, y prometió de traducirlos bien y fielmente y con mucha brevedad: Pero yo por facilitar más el

(1) Zagokela = egoten aal zela.

ruarekin, ta otoiztu nuen, arabiera'tik gaztelerara itzulikatze-ko gutun ayetan Don Kijotez mintzo ziren guziak, itzik kendu ta eratxeki gabe, lan-saritzat nai zuena eskeintzen niola.

Bi arua maats-ximura ta bi zazerdi gari bakarik eskatu zidan ordaintzeko, ongi, itzez-itzez ta asti gutiren buruan itzulikatuko zuela itzeman ta.

Arazoa etexago nik bururatzegatik eta eskutik ez uztegitik olako aurkientza ona, ene etxera erakari nuen mairua, ta ilabete bat eterdi baño zerbeit geiagoen buruan itzulikatu zuen guzia, emen dagoan era berean.

Leenbiziko palasa edo kartapazioak zekaren, izan zen beza. laxe, euskaldunak eta Don Kijotek elkarrekin izan zuten garaikeria'ren iduria: kondairakdion gua berean: ezpatak goiti, bata bere mazmaroa'kin, bertzea beriz burkoakin. Euskaldunaren zamaria, ain bizi-iduri zagon, ageri baizuen urundik, alogeran artua zuela.

«*Don Sancho de Azpeitia*» zekusan idatzita euskaldunaren iduriaren azpian, ala bide zelakotz bere izena. «*Rocinante*» zaldiaren pean, beriz, zegoan ezaria «*Don Quijote*».

Miragariki egina zegoan Rocinante'aren iduria: luze, argal ta meatua, bizkarezura garai ta goseak yana anbatetaraino, argi, erakusten zuelarik oarmenduki

negocio, y por no dejar de la mano tan buen hallazgo le truje a mi casa donde en poco más de mes y medio la tradujo toda del mismo modo que aquí se refiere. Estaba en el primero cartapacio pintada muy al natural la batalla de Don Quijote con el vizcaíno, puestos en la misma postura que la historia cuenta, levantadas las espadas, el uno cubierto de su rodela, el otro de la almohada, y la mula del vizcaíno tan al vivo, que estaba mostrando ser de alquiler a tiro de ballesta. Tenía a los pies escrito el vizcaíno un título que decía «Don Sancho de Azpeitia», que sin duda debía de ser su nombre, y a los pies de Rocinante estaba otro que decía «Don Quijote».

Estaba Rocinante maravillosamente pintado, tan largo y tendido, tan atenuado y flaco, con tanto espinazo, tan ético y confirmado, que mostraba bien al descubierto con cuanta advertencia y propiedad se le había puesto el nombre de Rocinante. Junto a él estaba Sancho Panza, que tenía del cabestro a su asno, a los pies del cual estaba otro rótulo que decía: «Sancho Zancas» y debía ser que tenía, a lo que mostraba la pintura, la barriga grande, el talle corto y las zancas largas, y por esto se le debió de poner nombre de Panza y de Zancas, que con

eta bidezki eman ziotela «Rocinante» izen ori: euskeraz er'an nai baita Oikozaldia.

Aren ondoan zagon *Sancho Panza*, kaprestutik astoa kontintzen, ta bere oñetan idazpe-turik «*Sancho Zancas*», sabel andi, zangaluze ta soin laburekoa bide zelakotz, iduriak aski argi adi-tzera ematen zuen bezala: Oren-gatik ezari bide zioten izen-orde-tzat Panza ta Zancas, bi gisetara deitzen baitute kondairan.

Bertze xehetasun zenbeit er'an zitezken oraino, baño guziak ar-dura gutxikoak, edestiaren ma-mi ta egiari buruz; edesti batek aski baitu egiatia izatea, txara ez izateko.

Edesti au osoki egiazkoa ez denez zerbait er'an baldin ba-daiteke, bere egilea arabiatar'a zelakotz izanen da, berez baitira gezurtiak eri artakoak: ta egiak er'aten xuuregi ari izan dela esku-zabalegi baño sinets ditake, etsai andiak baiditugu.

Ta ala iduritzen zait, idaz-kol tzakin goraki goretsi beako zuenetan alako zaldun ona, be-rariz ixilean iragaiten dela. Gauza au gaizki egina ta gaizkiago as-matua, kondairagileak bear du-telakotz eta izaten direlako zeatz, egiatiak eta alderdikeririk gabe-koak, bere gutizia edo beldura, zalekeri edo ayerkunde guziak alde bat gelditzen direla, deus gutienik ere aldaratu gabe egia-ren bidetik.

estos dos sobrenombres le llama algunas veces la historia. Otras algunas menudencias había que advertir: pero todas son de poca importancia, y que no hacen al caso a la verdadera relación de la historia, que ninguna es mala como sea verdadera. Si a esta se le puede poner alguna objeción cerca de su verdad, no podrá ser otra sino haber sido su autor arábigo, siendo muy propio de los de aquella nación ser mentirosos, antes se puede entender haber quedado falto en ella que demasiado. Y así me parece a mí, pues cuando pudiera y debiera extender la pluma en las alabanzas de tan buen caballero, parece que de industria las. pasa en silencio. Cosa mal hecha y peor pensada, habiendo y debiendo de ser los historiadorea puntuales, verdaderos y no nada apasionados, y que ni el interés ni el miedo, el rencor ni la afición no les haga torcer del camino de la verdad, cuya madre es la historia, émula del tiempo depósito de las acciones, testigo de lo pasado, ejemplo y aviso de lo presente, advertencia de lo porvenir. En esta sé que se hallará todo lo que se acertare a desear en la más apacible: y si algo bueno en ella faltare, para mí tengo que fué por culpa del galgo de su autor, antes que por falta del sujeto. En fin su

Edestia edo Kondaira baita Egiaren ama, Astia'ren kidea, Eginkizunen bilguma, Iragana ron lekuko, Oraiuntako oarmen ta eginbide, ta Etorkizuna'ren beri-asmazale.

Kondaira untan, badakit, arkituko duzula beste edozein ipui baketsu batean gutiziatu leikena ta zerbait onik uts badu, eskier nago eztela izanen gai motzegia zuelakotz, baizik eta bere, egile *xarlango* (1) 'arengatik.

Itz batean, kondaira'ren bigaren zatia, itzulpenaren arabera, ala asten zen:

Beren ezpata txorotxak goitira altxatuak, anbateko era-ixurran zeuden bi gudulari kementsu ta asoretuak, iduri baizuen ortzea, lura ta lezea mehatxatzen zituztela.

Euskaldun samurtua izan zen leenik io zuena, anbateko indarakin ta ain azkarri, non ezpazitzaion bidean ezpata zearkatu, ukaldi bakar arekin bukatua zen bere garaikeria, baita ere gure zaldunaren gertakari guziak.

Zorionari esker, ongi geritzatua zagon gure yauna gertakizun andiagoetarako, ta, zorionak makurtu zuen bere etsayaren ezpata.

Soin ezkerreko aldean yo bazion ere, etzion beste minik egin, baizik eta alde ortako burdin-yauntzia uratu, puskatu burdi-

segunda parte siguiendo la traducción, comenzaba desta manera:

Puestas y levantadas en alto las cortadoras espadas de los dos valerosos y enojados combatientes, no parecía sino que estaban amenazando al cielo, a la tierra y al abismo: tal era el denuedo y continente que tenían.

Y el primero que fué a descargar el golpe fué el colérico vizcaíno, el cual fué dado con tanta fuerza y tanta furia, que a no volvésele la espada en el camino, aquel sólo golpe fuera bastante para, dar fin a su rigurosa contienda y a todas las aventuras de nuestro caballero; más la buena suerte que para mayores cosas le tenía guardado, torció la espada de su contrario de modo que, aunque le acertó en el hombro izquierdo, no le hizo otro daño que desarmarle todo aquel lado, llevándole de camino gran parte de la celada con la mitad de la oreja, que todo ello con espantosa ruina vino al suelo, dejándole muy maltrecho. ¡Válame Dios, y quién será aquel que buenamente pueda contar ahora la rabia que entró en el corazón de nuestro manchego, viéndose parar de aquella manera!

No se diga más sino que fué

(1) *xarlango* = galgo (Elizanburu).

nezko zapela ta ereman belari erdia, gaizki zanpatua utzirik, ura guzia luèratuz geroz onda men izigarían.

¡Alajainkoa! Nork éran lezake orai zeatzki, gure Mancha'tara ren biotz bareneko asarea, oren negargariki bere burua ikusi zuelarik!

Ez da geiago éran bear auxe baizik; zutitu zela beriz oinetako irozkaietan (1) eta bi eskuz tinkiago estuturik bere ezpata, eman zion euskaldunari anbateko ukaldia burkoan eta buruan berean non burkoa izan ezpalu bezala, mendi bat gañera erori balitzaio lez (2), asi zen odola zeriora sudur, ao ta belarietatik, doidoia gelditu baizen erori gabe bere zamariaren lepoa besarkaturik.

Ala ere, oñak atera zituen oinburdinetatik eta gero besoak lazatu, ta zamari izitua, ikaragarizko ukaldiaren-gatik, lasterari eman zen lalean, yauzi zenbeiten buruan bere yabea luera bota baizuen.

Adi-adi zagon Don Kijote euskaldunari so, ta ikusi zuelarik erortzen, yautsi zen bere zalditik ta urbildu zitzaion zalui: begietan beretan paratuz bere ezpataren mutur txofoxta, bake emateko eran zion, bestela bertan burua moztuko zakola.

Konorturik gabe baizagon eus-

de manera, que se alzo de nuevo en los estribos, y apretando más la espada en las dos manos, con tal furia descargó sobre el vizcaíno, acertando de lleno sobre la almohada y sobre la cabeza, que sin ser parte tan buena defensa, como si cayera sobre él una montaña, comenzó a echar sangre por las narices y por la boca y por los oídos, y a dar muestras de caer de la mula abajo, de donde cayera sin duda, sino se abrazara con el cuello; pero, con todo eso, sacó los pies de los estribos, y luego soltó los brazos y la mula espantada del terrible golpe dió a correr por el campo, y a pocos corcovos dió con su dueño en tierra. Estábaselo con mucho sosiego mirando Don Quijote, y como le vió caer, saltó de su caballo, y con mucha ligereza se llegó a él y poniéndole la punta de la espada en los ojos, le dijo que se rindiese, sino, que le cortaría la cabeza. Estaba el vizcaíno tan turbado que no podía responder palabra, y él lo pasara mal según estaba ciego Don Quijote, si las señoras del coche, que hasta entonces con gran desmayo habían mirado la pendencia, no fueran a donde estaba, y le pidieran con mucho encarecimiento les hiciese tan gran merced y favor de perdo-

(1) irozkaietan = estribos.

(2) lez = legez = bezela.

kalduna etzuen itzik yardetsi: gaizki ibiliko zen, ain itsutua zagon Don Kijote, zaldigurdian zeuden andereak, orduarte atsekabe andiarekin bofoka guzia ikusi zutenak, urbildu ezpazitzaien ura zagon tokira biotzetik eskatzera, eskef onez, otol, bizia barkatzeko beren ezkutari edo mutilari.

Don Kijotek orduan yardetsi zioten oso aro ta andizki: «Bozik eginen dut, beraz, nere andere ederak, eskatzen dautazuena, bannan baldintza bati esker: zaldun unek itzeman akidala yoanen dela Toboso erira ta berdingabeko Dulcinea anderearen aitzinean aurkeztuko dela, andere arek untaz nai duena egiteko.

Betere oarteman gabe Don Quijotek eskatzen zuenaz ta Dulcinea ori nor zitekean ere galdegin gabe, baietz eran zioten andre izitu ta atsekabetu ayek, beren ezkutari edo mutilak eginen zuela arek nai zuen guzia.

«Itzematzen dautazuenarengatik eztiot nik geiago batere minik eginen, berak ongi aski irabazi duen aren».

nar la vida a aquel su escudero. A lo cual Don Quijote respondió con mucho entono y gravedad:

«Por cierto, hermosas señoras, yo soy muy contento de hacer lo que me pedís: más ha de ser con una condición y concierto, y es que este caballero me ha de prometer de ir al lugar del Toboso y presentarse de mi parte ante la sin par Doña Dulcinea, para que ella haga dél lo que más fuere de su voluntad.

Las temerosas y desconsoladas señoras, sin entrar en cuenta de lo que Don Quijote pedía, y sin preguntar quién Dulcinea fuese, le prometieron que el escudero haría todo aquello que de su parte le fuese mandado.

«Pues en fe de esa palabra, yo 'no le haré más daño, puesto que me lo tenía bien merecido».

“Don Kijote,, -ren atal bat euskeratuta

IX'G. ATALA

Euskaldun lerdanak era Mantxa'ko seme bioztunak izandako arigarizko boroka bukatu ta azkena ematen zaionekoa.

Edesti onen lenengo zatian euskaldun kementsua ta Don Kijote ospetsua ezpatak gora, burni-utsik, utzi genituan, asar'etu bi zar'asta jotzeko tankeran, baldin betean ar'apatzekotan, alkar'en soñak goitik beera ir'ikitu ta bi egin alakoak bederen, ta granada bat bezela biak ebakitzeko lain; ta ez bat ez besteko artan alako edesti gozatsu arek utsegin eta orpotik etena gelditu zitzaigun, aren ur'engorik non arkitu bere egifeak batere belir'irik aipatu gabe.

Onetxek ar'as belutu ninduan. Gutxitxo irakur'itakoaren atsegiña atsegabe biurtu zitzaidan, alako ipui gozatsu arek bukatzeko bear zuan puska aundiak—neri ala iruditu—arkibide gaitza zekarela oldoztuaz. Ain zaldun jator'ari iñoiz ikusitako egitekoak idaztea bere gain artuko zuan jakintsurik ez izatea, eziñezkoa ta oitura onetik at iruditu zitzaidan; gabe ez bai-zan arkitu ozteak «adu'retarakoak» derizkion zaldun ibilkari iñortxo. Oietako bakoitzak bat-bi jakintsu egokiak bai-zeuzkan, ez bere egintzak idatzi bakar'ik, baita oldozkun pitiñenak eta umekeriak—eskutuenak zirala ere—irudikatzen zituzten. Platir ta bere idekoek gañezka izanda bera batere gabe gelditu beara, ez zan ain zoritxarekoa izango oren zaldun jator'a. Ezin ba oren edesti lerdena besomotz eta elbar'itua geldituko zitzaigunik iñola ere ayer izan. Ta aldiaren maltzurkeria aitzakitizat artuta, eskutatuta edo iraungita ez ote zeukan, beronek gauza guztiak iretsi ta iraungitzen dituala-ta.

Beste aldez, bere idaztien artean *Desengaño de zelos* ta *Ninfas y Pastores de Henares* bezin beriak arkitu zituztela-ta, bere edestia ere beria bear zuala izan iruditzen zitzaidan. Ta idatzita egon ezaren, bere erixkako ta onen inguruko eritar'ak jakiñan gañean egongo ziran-edo. Buru-auste onek zentzuko ariak naspilatuz zizkidan ta Mantxa'ko Don Kijote gure españar ospetsuaren edestia ta egite-

koak ziñez eta miñez jakiteko egañitu ninduan, bera mantxatar zalduntzaren eredia zalarik. Gure sasoian ta gaurko egun itzale-tan, berau izan zan lenengoa iskiludun ibilkarien langintza ta ari-ke-tan: irañak zuzendu, alarguneri lagundu ta mendiz-mendi ta ibaretan garbitasuna soñean, astinkai ta zaidi otzanakin ibili oi ziraneko neskatxak babestu. Eta baldin aroputzen batek, edo aiz-kora ta burukodun batek, ala oi gabeko aundiren batek, indarka egiten ez bazien, igarotako urteetan bazan, larogei urte buru, egu-nik ere aterpean lo egin ez zuana, ilobira bere amak aur-eginda bezin osoa joan zan neskatxa. Ori ta beste zer asko dala-ta, gure Don Kijote lerdena eten gabe ta zenbatu ezin alako goraeñ gari dala diot. Neri ere ezin lezaidateke gorarik uka edesti atsegingari onen azkena bilatzen erabili nituan lan eta arduragatik. Eta Goiak, gertaldiak eta zorionak lagundu ez bazidaten, badakit nik, baiki, adi-adi irakuriko duanaren ordubetekako jolasa ta atsegiñaren gabe geldituko zala mundua. Onelaxe, bada, arkitu nuan.

Bein batean Alcaná de Toledo'n nengoela, ziriko-saltzale bateri idazkai-zoroak eta paper-zarak saltzera morosko bat etori zitzaion. Ta kaleetako paper autsiak izanda ere, ni irakurtzalea bai-naizen, nerezko zalekeri onen bidez moroskoak saltzen zituaneke zoro bat artu nion, ta bertan arabitar irarkiak igari. Ta naiz irarkiak eza-gutu, irakurtzen ez nekizkianez geroz, irakuri zitzakean kristau-tutako mairutar baldarnaturen bat an agiri ote zan begira ibili nin-zan.

Ta alako adirazlerik topatzen ez zitzaidan oso gauza gaitza izan, beste izkera ohea ta zaaragokoa bilatu izan banu ere arkitu neza-kean-eta. Azkenez, bat topatzeko zoria izan nuan, ta nere naia adie-razi ta idaztia eskuratutakoan, erditik idiki ta zertxobait irakuri ondoren, parez asi zan. Zertaz par zegian galdetu nion, ta idazti arek zerenda bazterean oarez idatzita zeukan gauza batengatik zala erantzun zidan. Esateko eskatu nion ta berak, paregiteari utzi gabe, esan zuan: Len esan dedan bezela, emen ertzean auxe idatzita dago: «Toboso'ko Goxone onek, edesti onetan ainbestetan aipa-tutakoak, Mantxa guztiko beste edozein emakumek baño zerikia gatzatutzeko kuntzarik onena zuala diote».

Nik *Toboso'ko* Goxone esaten entzun nuanean aritu ta geldu nintzan, zoro aiek Don Kijote'ren edestia ote zeukaten bat-batean iruditu zitzaidan. Uste onetan, lenbaitlen asiera irakurtzeko egin nion; ta alaxe, arabitarren izkera gaztelerara ikusi batez biurturik, onelaxe ziola zion: *Mantxa'ko Don Kijote'ren edestia, Cide Hamete*

Benengeli arabitar edeslariak idatzia. Idaztiaren izena belariratura artu nuan pozari itxura kentzeko zentzua oso bea'erekoa izan nuan: ta ziriko-saltzaleari beatz-tartetik itzulikatuta zeramazkian paper ta zo'roak erial erdian erosi nizkion mo'roskoari; baldin berak eza-guera izan ta nik eskuratzeko neukan gogoa jakin, erosgoan sei erial ba'ño geiago bere buruari abindu ta artu zitza'keen. Geroago kristau-mairuarekin aldendu ta Eliz nagusiko anba'ratik alka'rekin joan gi'nan, ta Don Kijote'tzaz zioten zo'ro aiek guztiak, ezertxo gutxitu ta geitu gabe, gaztel izkerara biurtzea a'rendu nion, orda-ñez nai zuana emango niola. Bi a'ru patsa ta bi zarerdi garikin nai-kotu zan ta biurpena ondo, zintzoki ta aguro egingo zuala abindu zidan: ba'ño nik, arazoa era'ztutzeko asmotan, eta ain arkitu ona eskutik ez uztea'ren, nere etxera eka'ri nuan, ta ilabete ta erdi ba'ño geixeagoan, emen edesten dan bezelaxe osoa biurtu zidan bertan.

Lenengo zo'roan Don Kijote'k euskaldunarekin izan zuan bo'roka itxura bere-berean irudikatua zegoan, biak edestiak dion tankera berean ja'riak, ezpatak gora, bata la'uzko ikurdiarekin estalia, bes-tea oaburukoarekin, ta euskaldunaren mandoa berebiziko jator, azkona-bota bidean ezagun zuan alogerakoa zala. Euskaldunak auxe zion idazkuna zeukan o'ñetan: *Santxo Azpeitiara* (1), ezba'irik gabe ori bear zuan bere izena; ta Rozinante'ren o'ñetan au zion beste bat: *Don Kijote*. Rozinante a'riga'ri zegoan irudikatua, ain luze ta zuzen, ain argal ta meaxka, ain ga'luruts, ain benazko idor-eriduna, Rozinante izena zein jakin ta egokitasunarekin ja'ri zion agirian erakusten zuala. Bere ondoan Santxo Potzo zegoan, astoa esteka-tik elduta zeukana; bere o'ñetan beste idazkun batek zion: *Santxo Zanko*. Ta irudiak erakusten zuanez sabelaundi, lazomotz eta zankoluze'a zan; ta onetxegatik ja'riko zizkioten Potzo ta Zanko ize-nak (2); edestiak bi izengoiti auekin izendatzen du batzuetan. Zer oartu beste xeetasun batzuek ere baziran; baso guztiak jaso gutxikoak eta edestiaren esate egizkoarekin zer ikusi ez dutenak; ez bai-da edesti tx'a'rik egizkoa izatekotan.

Oneri bete egitasunaz akatzik ja'ri baleza'io'ekte, bere eg'i'lea ara-bita'ra izan izatea da, ango endakoek berezkoa dute gezurtiak izatea-

(1) Guk «euskalduna» ja'ri dugun tokian, Cervantes'ek «bizkaita'ra» idatzi zuan; ba'ño bere gogoa euskalduna aipatzea zan, aspaldiko sasoi'an «bizkaitarak» deitzen zieten euskalduneri. Santxo ori azpeitiara izanda ezin ba bizkaitara izan, gipuzkoara baizik.

(2) Cervantes'ek *Panza* ta *Zancas* idatzi zuanaren ga'nean guk *Potzo* ta *Zanko* ipi'ni dugu, euskaldunarentzat adigariagoak dirala-ta; baita ere *Goxone*, *Dulcinea'ren* truke.

ta. Eta ain etsaiak ditugula-ta, geiegikeriz baño gutxikeriz egiña dala uste izatekoa da; ta nik ere ala deritzat, alako zaldun jato'ra goratzen oitzoa edatu aal eta bear zuanean, badirudi naita ixiltzen dala: gaizki egiña, ta uste gaiztokoa auxe; edeslariak zintzoak, egi-tiak eta iñoren aldektasunik gabe bear dute izan; ez sariak, ez go'otoak ez griñak egi-bidetik okertu ez zitzatekenekoak. Edestia egiaren antza da, aldiaren leikidea, egintzaen bildegia, igazaldieren ziñaldaria, orain-oraingo ikasbide ta gatzigua, etorkizunaren o'ara. Samu'renean nai genukean guztia onetan idoroko dutela badakit; eta baldin on-danaren utsik balego, nere'kiko, gaia beare'z baño, bere egile azkartzalearen e'ruagatik izan da. Bukabidez, bere bi-garen zatia, biurpenari jafai, onelaxe asten zan.

Bi borokalari bulartsu ta asare'tuek ezpata zo'rotzak goraturik, baziruditen goia, lu'ra ta amildegia zematzen zituztela: alakoxea zan zeukaten adore ta tankera jato'ra. Ta zartakoa jotzera lenen abiatu zana euskaldun amora'tua izan zan, ta topo-aldian ezpata ez biurtzekotan, zartako ura bakara naikoa izango zuan borokaldi garatz ura ta gure zaldunaren adu'reta-madu'retak txoil bukatzeko, ain indarduna ta izugaria izan zitzaion; baño gauz aundiagoetarako jagonda zeukan zorionak, bere aurkariaren ezpata okertu zuan, ta naiz bizkarean ezkeraldean jo, alde artako aldezka osoa kendu beste kalterik ez zion egin, eta, bide batez, buru-estalkiaren puska aundia eraman, belari erdia ezik; eta ororekin ikaragarizko lu'ra jotzea egin zuan, oso min artua.

¡Jainkoak lagun dakidala! ¡Nork lezake orain ongi edestu, tankera artan bere burua ikusita, gure Mantxa'ko semearen biotzean ba-reneratu zitzaion amora! Aal bazuan, aal ez bazuan, be'riro oin-burnietan bereak ipiñirik altxa zan, eta ezpata bi esku-tartean es-tuturik, euskaldunari gañetik asare bizian jo zion zartakoa. Oabu-rukua ta burua bete-betea ar'apatu zizkion, ta ain aldezka onaren ajolagatik mendia gañera erori bazitzaion ere, sudu'retik eta bela-rietatik odola botatzen ta mandotik erori-itxuran asi zan, eta ero-riko zan, noski, baldin lepotik eldu ez bazion; baño, ala ere, oin-burnietatik oñak atera zituan, eta gero besoak laga, eta ikaraga-ritzko zartako arekin izututako mandoak, landatik zear laisterkari eman, ustarka asi, ta asitzea asi ta jabea lu'reratu zuan.

Don Kijote bare-bare zegokion begira; ta lu'ra erortzen ikusita bere zalditik jaiki eta arin-arin bereganatu zitzaion ta ezpata-musua begietan jaririk, bere burua menpekotzat ematea esan zion, bes-tela burua moztuko ziola. Euskalduna oso ikaratuta zegoala-ta,

ezin itzik erantzun; eta Don Kijote itxututa zegoanez geroz, gaizki ibili bearko zuan, baldin aldarte gaiztoz ordurarte bořokari begira egon zitzaioten zalgurdiko andreak Don Kijote zegoaneko artara joan eta ařenka biziāz beren mořoi areri bizitza barkatzeko eskar ona egitea eskatu ez bazioten. Don Kijote'k aundi ta bene erantzun zien: «Oso pozik nagokizute andre eder oiek zuek eskatzen didazutena egiteko, baiki; bařo bear da bear baldintz eta itun bat izatea. Zaldun onek abindu bear dit Toboso'ko luřaldera joatea, eta berdingabeko Doņa Goxone'ren aurean nere izenean jartzea, berak beronekin zer gogoak eman ura egiteko».

Andre beldurtu atsegabetuek, ez Don Kijote'k eskatzen zuana bururatu, ez Goxone nor zan galdetu, bere aldetik agindua izan lezaiokean guztia mořoiak egingo zuala abindu zioten.

«Itz ori sinisten dedala-ta ez diot, bada, gaitz geiagorik egingo, ondo irabazita zeukakidanaren».

ANABITARTE'tar Augustin

(euskeratzalea)